EBAZPENA, 2020ko irailaren 28koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere, parte hartuko duten Epaimahaien eta Batzorde Baremaztaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren zehazten dituena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren).

2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (EHAA, 2020ko otsailaren 27koa), Hezkuntzako sailburuarena, hautaketa-prozeduretarako deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako Aginduaren 5.2.2 eta 5.4 oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta Epaimahaietako eta Batzorde Baremaztaileetako kideek zozketatu aurretik, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko dira espezialitate bakoitzeko Epaimahaien eta Batzorde Baremaztaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

1.– Espezialitate bakoitzeko Epaimahaien egoitzak hurrengo lurralde historikoetan kokatuko dira:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

| **Espezialitatea** | **Lurralde Historikoa** |
|---|---|
| Filosofia | Bizkaia |
| Latina | Araba |
| Gaztelania eta Literatura | Araba |
| Geografia eta Historia | Gipuzkoa |
| Matematika | Gipuzkoa |
| Fisika eta Kimika | Gipuzkoa |
| Bilogia eta Geologia | Bizkaia |
| Euskara eta Euskal Literatura | Araba |
| Marrazketa | Gipuzkoa |
| Frantsesa | Bizkaia |
| Ingelesa | Araba |
| Musika | Gipuzkoa |
| Gorputz Hezkuntza | Bizkaia |
| Hezkuntza-orientabidea | Bizkaia |
| Informatika | Gipuzkoa |
| Enpresen administrazioa | Gipuzkoa |
| Analisi eta kimika industriala | Bizkaia |
| Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak | Gipuzkoa |
| Eraikuntza zibilak eta etxegintza | Bizkaia |

| | |
|---|---|
| Ostalaritza eta Turismoa | Bizkaia |
| Lanerako prestakuntza eta orientabidea | Bizkaia |
| Esku-hartze soziokomunitarioa | Gipuzkoa |
| Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa | Bizkaia |
| Ibilgailuak mantentzeko antolakuntza eta prozesuak | Bizkaia |
| Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak | Bizkaia |
| Osasun-prozesuak | Bizkaia |
| Akuikultura prozesuak | Gipuzkoa |
| Sistema elektronikoak | Bizkaia |
| Sistema elektroteknikoak eta automatikoak | Bizkaia |

- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa

| **Espezialitatea** | **Lurralde Historikoa** |
|---|---|
| Sukaldaritza eta gozogintza | Bizkaia |
| Estetika | Bizkaia |
| Ile-apainketa | Bizkaia |
| Soldadura | Gipuzkoa |
| Zurgintzako eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa | Gipuzkoa |
| Ibilgailuen mantentze lanak | Bizkaia |
| Makinen mekanizazioa eta mantentzea | Gipuzkoa |

2.– Espezialitatearen edo espezialitate-taldeen Batzorde Baremaztaileen egoitzak hurrengo lurralde historikotan kokatuko dira:

| **Espezialitatea** | **Territorio Histórico Comisión Baremadora** |
|---|---|
| Filosofia<br>Frantsesa | Bizkaia |
| Latina<br>Gaztelania eta Literatura | Araba |
| Geografia eta Historia | Gipuzkoa |
| Fisika eta Kimika | Gipuzkoa |
| Biologia eta Geologia<br>Akuikultura prozesuak | Bizkaia |
| Marrazketa<br>Musika | Gipuzkoa |
| Gorputz Hezkuntza | Bizkaia |
| Informatika<br>Matematika | Gipuzkoa |
| Euskara eta Euskal Literatura<br>Ingelesa | Araba |
| Zurgintza eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa<br>Soldadura<br>Makinen mekanizazioa eta mantentzea | Gipuzkoa |

| | |
|---|---|
| Enpresen administrazioa<br>Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak<br>Esku-hartze soziokomunitarioa | Gipuzkoa |
| Ibilgailuen mantentze lanak<br>Estetika<br>Ile-apainketa<br>Sukaldaritza eta gozogintza | Bizkaia |
| Sistema elektronikoak<br>Sistema elektroteknikoak eta automatikoak<br>Ibilgailuak mantentzeko antolakuntza eta prozesuak<br>Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak | Bizkaia |
| Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa<br>Laneko prestakuntza eta orientabidea<br>Hezkuntza-orientabidea | Bizkaia |
| Analisi eta kimika industriala<br>Osasun-prozesuak<br>Ostalaritza eta Turismoa<br>Eraikuntza zibilak eta etxegintza | Bizkaia |

3.– Argitara ematea ebazpen hau Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan:

- http://www.irakasle.eus («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» edo, kasuaren arabera, «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Espezialitate berriak eskuratzea» - "Berriak".

- http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/ - «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» - "Epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak".

4.– Interesatuek gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 28an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria

JON AGIRRE HUERGA